

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuak zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoak jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaian gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

7. KAPITULUA

ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Sarrerako hitzak

Argi artifiziala kontrolatzeko teknikak unibertsalak dira. Barrualdeak argiz hornitzeko, ezagutza tekniko horietan oinarritzen gara; gero, daukagun denboraren eta irudimenaren arabera, modu batera edo beste batera antolatuko dugu argiztapena. Kapitulu honetan aipatutako teknika horiek aztertuko ditugu, urratsez urrats. Lantegia atalean, argiztapen-plangintza bat nola egin ikasiko dugu.

Atalak

- Argiztapena eta ikusmena
- Argiztapenaren oinarriak
- Kontraste-erlazioa
- Argiztapena praktikan
- Eszenen girotzea
- Nola argiztatu dekoratu bat

-LANTEGIA ATALA: argiztatze-plangintza

NOLA ARGIZTATU DEKORATU BAT

Argiztatzeko tresneria kokatzen hasi aurretik, dekoratuko elementuek beren lekuetan egon behar dute. Zuzendariak prestatutako gidoi tekniko eta argiztatze-plangintza oinarrikoak dira, fokuak eta argiztatzeko beste tresnak non kokatu eta non entxufatu jakiteko.


Mahukak hedatu eta banatu ondoren, argi nagusia kokatuko dugu, eta, hura piztuta dagoelarik, eszenako gune garrantzitsuenetako diafragma-balioak koadernoan jasoko ditugu.

Ondoren, argi betegarria kokatuko dugu. Argi betegarria eta nagusia piztuta daudela, berriro egiaztatuko ditugu gune garrantzitsuenetako diafragma-balioak.

Jarraian, argi nagusia eta betegarria amatatu eta atzeko argia kokatuko dugu. Aitzeko argia piztuta daukagularik, bideo-kamera bera eta monitorea erabiliz, enkoadratutako irudian argi haren islarik daukagun ala ez ikusiko dugu. Hori egiaztatuta, monitorean, hondoa aski aldentuta dagoen ala ez ikusiko dugu; aski aldentuta ez badago, hondoko argi bat prestatuko dugu.

Bukatzeko, azken ukituak emango dizkiogu argiztapen orokorrari; eta, gune batzuk nabarmendu nahi izanez gero, beste foku batzuk jarriko ditugu. Guneren bat itzaletan utzi nahi badugu, fokuen hegaltxoak batuko ditugu edo banderak ipiniko.

Eszena bat argiztatzeko erabili ditugun argi-iturriak kolore-tenperatura ezberdinekoak badira, iragazkiak ezarri berdin ditzakegu. Horretarako, argi-iturrietako bat erreferentziatzen hartuta gainerakoak iragaziko ditugu. Eszena bat argi naturalez girotzeko, azkarragoa eta merkeagoa da bi fokuren argia gelatina urdinez iragaztea, leiho handi bat gelatina laranja estaltzea baino.



- 1 Argi nagusia
- 2 Argi betegarria
- 3 Aitzeko argia
- 4 Hondoko argia

LANTEGIA ATALA: Argiztatze-plangintza

Argiztatze-plangintza bat egiten hasi aurretik, dekoratuaren eta bertan garatuko den ekintza dramatikoaren gaineko informazio guztia eskura izatea komeni da: zer motatako argiak diren dekoratukoak bertakoak, bertan dauden objektuen eta haien azaleraren ezaugarriak eta orientazioa, non eta nola jarriko diren pertsonaiak eta nondik nora mugituko diren pertsonaia horiek.

Hori guztia jakin eta gero, xehetasun guztiak kontuan hartuta, zer-nolako tresnak erabiliko ditugun eta zenbat eta non kokatuko ditugun aztertuko dugu. Hau da, argiztatze-plangintza zehaztuko dugu. Metodo gisa, edozein argiztatze-plangintza egiteko, galdeketa bat proposatzen dizuet.

1. Eszena kanpoaldean ala barrualdean grabatuko da?

2. Demagun kanpoaldean grabatu behar dugula.

Ba al da korrante-hartunerik gertu? Erabil dezakegu?

Ongi ekipatutako instalazio elektrikoa al da?

Ba al du segurtasun-sistematik?

Non kokatuko dugu sorgailua? Dekoraturatik zenbateko distantziara?

Zer eguraldi iragarri dute grabazio-egunerako?

Zein da dekoratuaren orientazioa?

Noiz ematen dio eguzkiak?

Gidoiaren arabera, zer urtarotan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Gauetz ala egunez grabatuko dugu?

Argiztapen publikoaz balia al gaitzke?

3. Demagun barrualdean grabatu behar dugula.

Dekoratura iristen den argindarrak zenbateko potentzia dauka?

Zer tentsiotakoa da?

Non kokatuko dugu sorgailua? Dekoraturatik zenbateko distantziara?

Dekoratuak ba al du leihorik?

Zer orientazio daukate?

Zer motatako argiak ditu dekoratuak?

Erabiliko al ditugu?

Zer koloretakoak dira paretak eta sabaia?

Gidoiaren arabera, zer urtarotan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Gauetz ala egunez grabatuko dugu?

4. Galdeketa orokorra

Zein dira dekoratuaren neurriak?

Zenbat eszena grabatuko dira bertan?

Zein dira batzuen eta besteen arteko aldeak?

Gidoiaren arabera, zer ordutan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Proiektuaren arabera, zer motatako argiztapena eskatzen du toki horrek?

Zenbat pertsonaiak hartzen dute parte eszenan?

Nola eta nondik ibiliko dira pertsonaiak dekoratu barruan?

Non kokatuko da bideo-kamera?

Ba al dago argiztapen-aldaketarik plangintzako planoetan?

Nola jasoko dugu soinua?

Egin behar al dugu efektu berezirik argiekin?


Zenbat denbora daukagu argiak ipintzeko?


Zer bideo-kamera erabiliko dugu grabatzeko?


Argiztapen-plangintza egiteko dekoratuaren planoan da abiapuntua. Bertan marrazten dira dekoratuko elementu garrantzitsuenak; bertan adierazten dira, zuzendariaren gidoi teknikoan oinarritzat hartuta, bideo-kameraren kokaguneak eta aktoreen ibilbideak; argiztatzeko erabiliko diren tresnak ere bertan zehazten dira, dekoratuaren planoan. Argiztatzeko tresnak adierazteko honako sinbolo hauek erabiltzen dira:

Lanparak era honetan adierazten dira:

goritasun-lanpara 

argi nagusia 

argi leuna 

ziklorama-argia 

fluoreszente-sortak. 

Bai barrualdeko dekoratuetan, bai kanpoaldekoetan, eguzkiak eragin zuzena badu, adierazi egin behar da. Kanpoaldeko dekoratua bada, grabazio-garaian eguzkia non izango den eta nondik norako bidea egingo duen adierazi behar da. Barrualdeko dekoratua bada, eguzkiaren argi-izpiak dekoratura nola sartuko diren adierazi behar da.

HIZTEGIA

Hondoko argia: dekoratuaren atzeko alde argiztatzeko erabiltzen dena.

Argi nagusia: dekoratuko gainerako argiak menderatzen dituen argia. Bera da argi-iturri indartsuena eta lehenbizikoz ipintzen dena. Bideo-kameraren ardatzarekin 40° – 50°-ko angelua osatzen duela kokatzen da eta hura baino altuago. Argi nagusiari esker antzematen dira formak, elementuen kokapena eta haien ehundurak.

Argi betegarria: argi nagusiak eragindako itzalak argiztatzeko erabiltzen dena, irudi bateko alderdi argitsuena eta ilunenen arteko kontrastea oso bortitza izan ez dadin. Argi betegarriak itzalak argitu egin behar ditu, inoiz ez ezabatu eta itzal berriak eratu. Horregatik, argi betegarriak argi leun eta barreiatua izan behar du; ez du inolaz ere eragin behar argi nagusiak agindutako diafragmaren irekiduran.

Atzeko argia: pertsonaia edo pertsonaiak nabarmentzeko, hondotik aldentzeko eta bolumena emateko erabiltzen dena. Atzeko argiari esker, irudiak sakonera-sentsazioa irabazten du. Atzeko argiari aldentzeko argia ere deitzen zaio.

Kontraste-erlazioa: dekoratu bateko alderdi argitsuena eta ilunenen artean dagokeen erlazioa adierazten digun zenbakizko balioa da. Kontraste-erlazioa, argiztapen-kontrastea ere deitua, kalkulatzeko argi nagusiaren eta osagarriaren batura zati argi osagarria eragiketa egiten da.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN
- 4.- ARGIA
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK
- 11.- GRABATZEN

Ekoizlea:

iadi

LG- VI-28 / 06

Banatzaillea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusuntzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
du.

2006/05/02